



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen euskararen erabilera normalizatze-ko VII. Plana (2023-2027 plangintzaldia) onartzeko erabakia.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko uztailaren 21ean eginiko ohiko bileran (3/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* GUFEn Euskararen Erabilera Normalizatze-ko VII. Plana onartzen da. Plan hori VII. plangintzaldia dagokio (2023-2027); honekin batera doa planaren testua. Erabaki honen eranskin bakar gisa erantsi da, eta, xedapen-zatiari erantsita geratuko da, ondorio guztietarako.

Bigarrena: GUFeko gerenteari ahalmena ematen zaio plana egoki gauzatu eta garatzeko behar diren neurriak har ditzan.

Hirugarrena: Interesdunei jakinaraziko zaie erabaki hau, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari erabakiaren berri emango zaio. Horrez gainera, xedatzen da iragarri-taulan, erakundearen web orrialdean, Intraneten eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela.»

Bilbon, 2025eko abuztuaren 6an. — GUFÉ-ren Gerentea, David Latxaga Ugartemendia



GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA (GUFÉ) EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

VII.Plangintzaldia (2023-2027)



AURKIBIDEA

1 Sarrera	3
2. Aurreko Plangintzaldiak	5
3. VII. Plangintzaldia	5
3.1. Planaren metodologia: KEMEN	5
3.2. Hizkuntzen kudeaketa erakundetzea	8
3.3. Lan-prozesuaren diseinua	9
4 . Diagnostikoa	11
5. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa	16
5.1. Eragin-eremua	16
5.2. Eragin-epea	16
5.3. Xedea, erronkak eta helburu estrategikoak	16
5.4. Adierazleen araberako aurreikuspenak	20
6. Kudeaketa Plana	25
7. Hizkuntza Eskakizunen eta Derrigortasun Daten ezarpena	31
7.1. Lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunak	31
7.2. VII. Plangintzaldiko derrigortasun-indizea	31
7.3. VII. Plangintzaldirako derrigortasun-datak esleitzeko irizpideak	32
8. Plana garatzeko egiturak	33
8.1. GUFeko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Nagusia	33
8.2. Hizkuntzen kudeaketarako zentro/etxebizitza barruko batzordea	33
9. Plana garatzeko baliabideak	34
9.1. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak	34
9.2. Langileen hizkuntza-prestakuntza	35
10. Planaren jarraipen sistema	51



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

1. SARRERA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 6. artikulua dio euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala dela eta Euskadiko biztanle guztiek dutela bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Eta eskubide hori gauzatu dadin, Estatutuko 6. Artikulua dioenez, Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bi hizkuntzen erabilera bermatuko dute eta bien ofizialtasuna arautuko, eta haien ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak ezarri eta arautuko dituzte, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuak aldarrikatzen duen euskararen ofizialtasuna abiaburutzat harturik, 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Legeak euskararen normalizazio eta erabileraren sustapenerako markoa definitzen du, herritarren eskubideak eta administrazioek herritarrekiko dituzten betebeharrak direlarik hartarako oinarriak. Herri-aginteei gagozkiela, 10/1982 Legeak xedatzen du herritar guztiek dutela eskubidea herri administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri-aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Era berean, 2022ko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, Euskal Enplegu Publikoarenak, 2.2.e) artikuluan euskal enplegu publikoa gidatu behar duten printzipioen artean, euskararen erabileraren normalizazioarekiko konpromisoa jasotzen du. Legearen XIII. tituluaren xedatzen dira administrazioaren hizkuntza-normalizaziorako ezinbesteko izango diren lanabesak: hizkuntza-eskakizunak eta euskararen erabilera normalizatzeko planak.

Aipatutako legeotan xedatutakoaren arauz, 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 4. artikuluan, honako helburu nagusi hauek ezartzen ditu: euskararen erabilera normala eta orokorra izatea; herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta berezko hizkuntzaren erabileraren ekintza argiak abiaraztea.

Dekretu horren 5. artikuluekin bat, Euskararen normalizazioa helburu estrategikoa da, eta euskal sektore publikoko entitateek zeharkako politika publiko gisa kudeatuko dute, egiten dituzten jarduerak guztietan eragina izango baitu.

Hizkuntza-plangintza egiteko, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak honako hauek prestatu eta onartu beharko ditu:

- a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- b) Plan estrategikoak.
- c) Kudeaketa-planak.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

Mandatu horiek betez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2024ko otsailaren 6ko bileran onartu zuen VII. Plangintzaldirako euskararen erabilera normalizatzeko plan berria. Plan horrek jartzen du GUFEn erakundeak erabilera-plan orokor hau oinarri hartuta egingo duela bere erakunderako egokitzapena.

Hori da, azken batean, GUFEn Gobernu Batzordeak onartu duen plan honen zutoina eta arrazoi nagusia, euskara ohiko lan-hizkuntza gisa bultzatzea, Administrazioan bi hizkuntzen berdintasunera jotzea. Euskal gizartea bezala, Bizkaiko gizartea ere gero eta elebidunagoa den honetan, gizartearen zerbitzuean dagoen Administrazioak lehenak izan behar du errealitate horretara egokitzen. Administrazioari bide-erakusle izatea dagokio; legeak betearaztea ez ezik -eta horren aurretik- legeak betetzea dagokio, gizartearekin batera elebidunago bihurtuz doan Administrazioak bermatuko baitu zerbitzu aurreratua eta kalitatezkoa.

Horrekin bat, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emanak ditu VII. Plangintzaldirako irizpide orokorrak, herri-administrazioetan eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planak egiteko gida izan daitezzen. Zer esanik ez, honako erabilera-plan hau zedarrizteko orduan irizpide horiek guztiak hartu dira kontuan.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

2. AURREKO PLANGINTZALDIAK

Euskararen erabilera normalizatzeko prozesuari dagokionez, GUFE ez da hutsetik abiatzen. Hala, EAeko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuetan, bost izan dira orain arte GUFEn euskararen erabilera normalizatzeko onartu dituen planak:

- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak, 2000ko maiatzaren 18an Patronatuaren Kontseiluak hartutako akordioaren bitartez, II. Plangintzaldirako (2000-2002) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onetsi zuen.
- GUFEn Gobernu Batzordeak, 2006ko apirilaren 7an egin zuen bileran III. Plangintzaldirako (2003-2007) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen.
- GUFEn Gobernu Batzordeak, 2009ko maiatzaren 11n egin zuen bileran IV. Plangintzaldirako (2008-2012) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen.
- GUFEn Gobernu Batzordeak, 2013ko abenduaren 23an egin zuen bileran V. Plangintzaldirako (2013-2017) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen.
- GUFEn Gobernu Batzordeak, 2019ko apirilaren 3an egin zuen bileran VI. Plangintzaldirako (2019-2022) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen eta, besteak beste, lau urteko Plan Estrategiko bat ezarri zuen. Plan hori garatzeko, Kudeaketa-plana diseinatu zen.

Aurreko plangintzaldiei jarraipena emanez, oraingo honetan 2023-2027 Plangintzaldi berrirako plana onartzea dagokio GUFEn Gobernu Batzordeari. Horretarako, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretua onartzearekin batera, GUFEn euskararen erabilera aktibatze lanen prozesua abiatuz, VII. Plangintzaldira begira jarri eta hainbat erronka identifikatu dira.

3. VII. PLANGINTZALDIA

3.1. Planaren metodologia: KEMEN

GUFE erakundeak, VII. Plangintzaldirako Plan Estrategikoa (2023-2027) osatu du, 2024ko azken hiruhilekoan abiatutako autoebaluazioa oinarri hartuta.

Horretarako, Hizkuntza Politika Sailak euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko garatu duen marko eta tresna berria hartu dugu kontuan: **KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko Euskararen Normalizaziorako.**



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

Zentzu horretan, KEMEN markoa VI. Plangintzaldian administrazio publikoek erabilitako EME (Erreferentzia Marko Estandarra) markoaren garapena da. Marko berriak jarraipena ematen dio aurrekoari; halere, eragingarritasunari begira, egokitzapen nabarmenak ditu EMERekiko, bereziki zenbait kontzepturen definizioei eta adierazleen haztapen-balioei dagokionez.

KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko berriak edozein erakundetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. **Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari**; hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema-eguneraketa ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketari lehentasuna eman zaio, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- **Aginte-panela** osatu da. Aginte-panelak Euskal Sektore Publikoko erakundeen jarraipenerako gutxieneko adierazleak biltzen ditu (14 adierazle). Hau da, 14 adierazle horiek ezinbestean landu beharko ditu erakunde bakoitzak bere Plan Estrategikoan, eta 14 adierazle horiez gain, erakundearentzat estrategikoak diren gainerako adierazleak aukeratuko ditu.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

Hauxe da KEMEN marko osoa:

EREMUA	ARDATZA	ARLOA		
1. KUDEAKETA	% 30	1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	% 20	
		2. LIDERGOA	% 25	
		3. LANGILEAK	% 20	
		4. HIZKUNTZA-GAITASUNA	-	
		5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	% 15	
		6. HIZKUNTZA-KLAUSULAK	% 20	
		GUZTIRA	% 100	
2. ERABILERA	1. ZERBITZU-HIZKUNTZA	7. IRUDIA	% 20	
		8. HERRITARREKIKO HARREMANAK	% 80	
		GUZTIRA	% 100	
		2. LAN-HIZKUNTZA	9. BARNE-HARREMANAK	% 30
			10. KANPO-HARREMANAK	% 20
			11. PRESTAKUNTZA	% 15
	12. BALIABIDE INFORMATIKOAK		% 15	
	13. SORTZE-HIZKUNTZA		% 20	
	GUZTIRA		% 100	
	GUZTIRA		% 100	

Eta honako hau da Aginte-panela:

KUDEAKETA	
1.0.2. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
1.0.2 arloa: LIDERGOA	
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete ditezten.
1.0.4 arloa: LANGILEAK	
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK	
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.
ERABILERA	
2.1.2 arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK	
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz, herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK	
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
2.2.2 arloa: KANPO-HARREMANAK	
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeetara euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA	
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

Hori guztia kontutan izanda, VII. Plangintzaldirako erabilera-plan honek iturri bietatik hartzen ditu helburuak edo lan-ildo estrategikoak: batetik, VI. Plangintzaldiko planetik burutu edota guztiz garatu gabe geratu diren esparruetatik, eta, bestetik, KEMEN markoak ezartzen dituen berrikuntzetatik.

3.2. Hizkuntzen kudeaketa erakundetzea

Hizkuntzen kudeaketa erakundetzea da VII. Plangintzaldiko oinarri metodologiko garrantzitsuenetakoa.

“Erakundetzea” esan nahi du erakundeko partaide guztiek daukatela zerikusia hizkuntzeekin. Eta “hizkuntzen kudeaketak” adierazten du erakunde batean zelan erabiltzen diren hizkuntzak (adibidez, zelan erabili hizkuntzak komunikazioak bidaltzerakoan, telefonoz hitz egiterakoan, txostenak egiterakoan, publizitatean eta abarretan) eta hori lortzeko zer egiten den (adibidez, zein neurri hartzen duen, zer planifikazio egiten den, zer baliabide dagoen etab.)

Beraz, “hizkuntzen kudeaketa erakundetzeak” esan nahi du erakunde batean hizkuntzaren gaia erakunde osoari dagokiola, ez pertsona edo atal jakin bati, baizik eta erakundea osatzen duten estamentu guztiei, zeini bere eragin-esparruan.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen kasuan ere horrela ulertu behar da “hizkuntzen kudeaketa erakundetzea” esaten zaion kontzeptua. Erakundean egiten diren lan eta jardun guztietan erabiltzen da hizkuntzaren bat, dela euskara, dela gaztelania, biak direla edo besteren bat dela. Batzuetan ahoz, beste batzuetan idatziz.

Ez dago jardunik hizkuntzarik ez duenik. Zentro, etxebizitza, zerbitzu eta lanpostu guztiei eragiten dien kontzeptua da. Ez da arlo bati edo zuzendaritza bati bakarrik dagokion gaia; erakunde osoari dagokio eta erakundeko partaide guztiek dute beren erantzukizuna.

Zentzu horretan, euskararen normalizazioa gai transbertsala da. Beste gai transbertsalak bezala (aukera-berdintasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna...) gai estrategikoa da erakundearen barruan, eta, hortaz, erakundeak berak bere osotasunean kudeatu behar duen gaia da.

Orain arte aipatu diren oinarri metodologikoetan oinarrituta aurrera pausuak eman dira jada Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean VI. Plangintzaldian. VII. Plangintzaldian sakontzen jarraituko du euskararen erabilera erakundetzeko prozesuan.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

Erakundeko liderrak, bakoitza bere erantzukizun-esparruaren barruan, politika transbertsalen eta euskararen normalizazioaren garrantziaz jabetu, guri dagokigunez) eta horretan eredu izan behar dira. Baina euren eginbeharra ez da mugatzen eredu izatera; euskararen normalizazioan ezartzen diren helburuen betetze-mailaren jarraipena egin behar dute, eta helburuak betetzen ez direnean, neurri zuzentzaileak hartu.

Kudeaketa berriak liderren eta erakunde-ordezkarien konpromisoa eskatzen du, arduradunen eta buruen inplikazio zuzena, eta langileen parte-hartze aktiboa. Zeharkakotasuna bermatzen da horrela, eta euskara erakundearen kudeaketa-sisteman integratzen da.

3.3. Lan-prozesuaren diseinua

Atal honetan jaso ditugu VI. Plangintzaldia (2018-2022) amaitutakoan, diagnostikoa egiteko eta VII. Plangintzaldiari (2023-2027) dagozkion Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Planak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko prozesuak eta egiturak.

Honako hau izan da erakundearen diagnostikoa egiteko eta VII. Plangintzaldiaren Plan Estrategikoa zein Kudeaketa Plana diseinatzeko aurreikusitako urratsak:

1. Aurrelanak
<ul style="list-style-type: none">• Erakundeko teknikariei prozesuaren azalpena egin.• Talde Eragileak aurrelanak antolatu.• Proiektua garatzeko beharrezko informazioa trukatu.
2. Diagnostikoa
<ul style="list-style-type: none">• Diagnostikoa kuantitatiboa osatzeko datuak bildu eta informazioa jaso.• Datuak ustiatu eta ponderazioaren arabera emaitzak atera.• Diagnostiko kualitatiboa Erabilera Batzordeak osatu.
3. Planaren Diseinua
<ul style="list-style-type: none">• VII. Plangintzaldiaren oinarriak landu: erronkak eta helburuak.• Plan Estrategikoaren oinarriak zehaztu.• Adierazleei lotutako helburu estrategikoak landu.• Helburuak erdiesteko ekintzak, arduradunak eta epeak proposatu.• Kudeaketa-planaren proposamena egin.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

Plan Estrategikoa diseinatzeko bi egitura hauek osatu dira:

TALDE ERAGILEA

Partaideak

- GUFeko Trebakuntza arduraduna (Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza)
- GUFeko Euskara trebatzailea

Funtzioak

- Proiektua koordinatu eta ekintzak bideratu.
- Komunikazioak landu.
- Erabilera Plana behar bezala diseinatzeko oinarriak landu.

ERABILERA BATZORDEA

Partaideak

- GUFeko arlo eta zerbitzu ezberdinetako arduradun zein zuzendariak.

Funtzioak

- Euskararen erabilerearen eta presentziaren diagnostikoa kontrastatu eta osatu.
- Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana diseinatzeko lagundu.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

4. DIAGNOSTIKOA

GUFE erakundeko euskararen erabilera eta presentziaren egoeraren argazkia egiteko, hauek izan dira informazio-iturri nagusiak:

- **Alde kuantitatiboa zehazteko:**
 - o Erakundeak osatutako galdetegia.
 - o Erakundeko langileek osatutako galdetegia: 893 langileei bidali zitzaien eta horietatik, 140k erantzun zuten.
- **Alde kualitatiboa osatzeko:** Erabilera Batzordean zein Talde Eragilean egindako lan-saioak.

Hizkuntza eskakizunak

GUFEEko Lanpostuen Zerrendan 893 egiturazko lanpostu daude jasota. horietatik 704 lanpostutan derrigortasun data ezarrita dago. Derrigortasun-data ezarrita daukaten lanpostuetan dauden langileen %97k betetzen du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna.

Lanpostu guztiak hartuta (derrigortasun-data dutenak eta ez dutenak), langileen %76,6k du bere lanpostuari dagokion hizkuntz-eskakizuna egiaztatuta.

Indarguneak eta hobetu beharrekoak

Hala, KEMEN markoaren atal bakoitzean erakundearen indargune eta hobetu beharrekoak identifikatu dira, eta horrela, euskararen erabilerrari dagokionez, erakundea zein puntutan dagoen aztertu ahal izan da.

1. ARDATZA: KUDEAKETA: % 48

ARLOAREN DIAGNOSTIKO Kuantitatiboa	ONDORIOAK: ARLOAREN DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA % 50	<ul style="list-style-type: none">• GUFEn Giza Baliabideen Zuzendariordetzatik koordinatzen da euskararen kudeaketa orokorra. Euskara Batzordea osatua dago eta bertan erakundeko arduradunek parte hartzen dute, baina operatibitate-maila baxuarekin.• Jarraipen-sistemari dagokionez, ez da kudeaketa-planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikorik egiten; bai, ordea, plan estrategikoarena, plangintzaldiaren erdiko eta amaierako ebaluazioaren bidez. Urtean bizpahiru bilera egiten dira erabilera-planaren kudeaketari buruz.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

LIDERGOA % 59	<ul style="list-style-type: none">Arduradun politiko eta teknikoak Planaren garapen eta jarraipenerako ardurak banatzen dituzte eta adostutakoa betearazten dute, hala eskatzen zaienean. Gehienek jarrera proaktiboa erakusten dute. Edonola ere, erdizka biltzen dituzte erabilera-planean zehaztutako adierazleei buruzko datuak.
LANGILEAK % 47	<ul style="list-style-type: none">Langileei erdizka ematen zaie hizkuntza-irizpideei buruzko informazioa: Euskara Arloko arduradunak eta trebatzaileak 2023an sor- tutako Herritarrei telefonoz edo aurrez aurre harrera egiteko Gida eta Laguntza Zentro eta Etxebizitzetako erabiltzaile zein familiekiko harremanak euskaraz egiteko Protokoloaren aurkezpenak egiten dituzte Laguntza Zentroetan urtean zehar. Bestetik, pilulak emailaz astelehenero bidaltzen zaizkie langile guztiei.
	<ul style="list-style-type: none">Hasi berriak diren langileei email bidez helarazten zaizkie hizkuntza-irizpideak baina ez zaizkie aurrez aurre azalpenik ematen.Langileen % 31k adierazi du, gehienetan edo ia beti parte hartzen duela euskara-planeko ekimenetan. Baina, oro har, langileen parte-hartzea txikia da (%50k gutxitan edo oso gutxitan hartzen du parte).
HIZKUNTZA GAITASUNA % 56	<ul style="list-style-type: none">Galdetegia erantzun duten langileen %81k gaztelaniaz hitz egiten du errazago. Edonola ere, % 52k bere lanpostuko funtzioak euskaraz ahoz betetzeko gaitasun handia edo oso handia daukara adierazi du.Idatzizkoaren kasuan, langileen % 44k gaitasun oso handia edo gaitasun handia duela adierazi du; % 51k, aldiz, zailtasunak ditu funtzioak idatziz betetzeko eta %5,7k ez du gaitasunik.Arduradun politikoaren erdia bere funtzioak euskaraz egiteko gai da.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA, % 57	<ul style="list-style-type: none">Erakundeak nolabait ere komunikatzen die erabiltzaile eta familie euskararen erabilera sustatzeko abian duen estrategia, baina gehienetan zeharka egiten da, ekintza puntualen bidez (Korrikan kilometroa erosiz edota Euskaraldian dinamikak antolatuz).Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko ekimenetan parte hartzen du azken urtebetean: Besteak beste, Euskalitek antolatutako praktika onen aurkezpen-ekitaldian, HPSk deitutako lan- saioetan edota BFAk Euskalduna jauregian antolatutako jardunaldietan.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK % 25	<ul style="list-style-type: none">Erakundeak sinatzen dituen kontratu eta hitzarmen gehienek edo guztiek dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak.Aitzitik, hizkuntza-klausula hauei ez zaie jarraipen sistematikorik egiten.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

2. ARDATZA: ERABILERA : % 49

1. Eremua: Zerbitzu-hizkuntza: % 65

ARLOAREN DIAGNOSTIKO Kuantitatiboa	ONDORIOAK: ARLOAREN DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA
IRUDIA % 100	<ul style="list-style-type: none">Oro har errotulu, ikus-entzunezko eta eduki digitaletan hizkuntza-irizpideak errespetatzen dira (behin behineko errotulazioaren %2 gaztelaniaz dago) eta erakundeak ez du agerraldi instituzionalik egiten.
HERRITARREKIKO HARREMANAK % 56	<ul style="list-style-type: none">Erakundeak erabiltzaile eta familiei zuzendutako ia aurkezpen eta ikastaro guztiak gaztelaniaz egin dira. Ekitaldi hauek Laguntza Zentro bakoitzeko Zuzendariak kudeatzen ditu eta horrenbestez ezin izan da zehazki jaso zenbat aurkezpen eta ikastaro eskaini diren euskaraz. Nolanahi ere, noizean behingoak izan dira euskaraz eskainitakoak eta oro har ekitaldiak euskaraz ere eskaintzeko kudeaketa ez da modu sistematikoan egiten.Erabiltzaile eta familiei bidaltzen zaizkien dokumentuei dagokionez, %100 bi hizkuntza ofizialetan bidaltzen dira.Erabiltzaileak eta familiak oro har gaztelaniaz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz. Edonola ere, herritarrek euskaraz aurkeztu- tako dokumentu guztiei euskaraz erantzuten zaie.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

2. Eremua: Lan-hizkuntza: %43

ARLOAREN DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA	ONDORIOAK: ARLOAREN DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA
BARNE HARREMANAK % 48	<ul style="list-style-type: none">Erakunde barruko prozedura administratiboen zein xedapen orokorren %100 ele bietan jartzen dira abian.Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak % 42an egiten dira euskaraz; eta idatzkie dagokionez (aktak, deialdiak, txostenak, barne-zirkularrak, mezu elektronikoak, jakinarazpenak, pertsonal arloko dokumentazioa...), hauek izan dira langileen erantzunen batzaz besteko emaitzak: euskaraz %10,4, ele bietan %46,8 eta gaztelaniaz %59,7.Lanarekin lotutako elementuei dagokionez, (karpeten etiketak, fitxategiak, barneko errotulazio txikia, kopiagailuak, kafe-makina...) hauek izan dira langileen erantzunen batzaz besteko emaitzak: euskaraz %14,3, ele bietan %47 eta gaztelaniaz %63,6.
KANPO HARREMANAK % 58	<ul style="list-style-type: none">Sektore publikoa: Erakundeak bidalitako idatzizko dokumentuen %5 euskaraz izaten da, %80 ele bietan eta %15 gaztelaniaz. Langileen %49 sektore publikoko langileekin harremana dauka. Hauetatik, % 24 sektore publikoko langileekin euskaraz gaztelaniaz bezainbeste komunikatzen da, ahoz.Sektore pribatua: Idatziz, erakundeak dokumentuen %2 bidaltzen ditu euskaraz, %70 ele bietan eta %28 gaztelaniaz. Langileen erantzunen arabera, ahozko komunikazioen %16 euskaraz egiten da eta %48 gaztelaniaz izaten da, beti edo ia beti.
PRESTAKUNTZA % 38	<ul style="list-style-type: none">GUFEn langileei eskaintzen dien prestakuntza orokorraren %75 ele bietan da eta gainontzeko %25a gaztelaniaz eskaintzen die.Galdetegia erantzun duten langileen % 14k adierazi du azken urtean prestakuntza orokorra euskaraz jaso duela.Hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, langileek oinarrizko eskaintza jasotzen dute euren kontratu-motaren arabera. Izan ere, IVAPekin sinatutako hitzarmen bitartez, langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie Hizkuntza Eskakizuna eskuratzeko.2024/2025 ikasturtean 37 langilek jaso dute trebakuntza: 5 orduko ikastaroan (liberazioa) 17k; lanordutik kanpoko bi orduko ikastaroan 12k; lanordu barruko bi orduko ikastaroan: 2k; autoikaskuntzan 1ek eta udako barnetegian 5ek.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

	<ul style="list-style-type: none">Lanari lotutako hizkuntza-trebakuntza eskaini izan du erakundeak iraganean baina oso zaila zen taldeak sortzea Zentroetako langileak txandaka aritzen direlako. Online eskaintzeko saiakerak ere egin izan dira baina parte-hartzeak behera egin zuen nabarmen or- dezko langile-kopura gutxitu den heinean.
BALIABIDE INFORMATIKOAK % 20	<ul style="list-style-type: none">Langileen % 32k erabiltzen dituen baliabide informatikoen erdia baino gehiago euskaraz ditu eskuragarri eta langileen %11k adierazi du euskaraz erabiltzen dituela baliabide informatikoak.
SORTZE HIZKUNTZA % 40	<ul style="list-style-type: none">Galdetegia erantzun duten langileen %74k ez du lanean euskarazko testurik sortu behar.Euskaraz edo ele bietan zabaldu behar diren dokumentuei dagokionez, langileen % 36k nagusiki euskaraz edo euskara hutsean sortzen ditu eta % 57,6k gaztelaniaz, euskarazko testuen ardurarekin.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. PLANGINTZALDIA)

5.1. Eragin-eremua

Plan honen eragin-eremuak Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko zerbitzu, zentro, etxebizitza eta langile guztiak hartzen ditu bere baitan.

5.2. Eragin-epea

Erabilera-plan hau GUFeko Gobernu Batzordeak onartu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta hurrengo plangintzaldirako egitasmo berria onartzen den arte iraungo du.

5.3. Xedea, erronkak eta helburu estrategikoak

Plan Estrategikoaren xede nagusiari dagokionez, bada, GUFEn etorkizuneko egoera honela irudikatu da, honako galderari erantzunez: **Non egon nahi du GUFEn erakundeak, euskarari dagokionez, 2028an?**

Erabilera-plan honen xede nagusia da GUFEn euskararen erabilera areagotzen jarraitzea, bai herritarrei ematen zaien zerbitzuan, bai erakundearen barruko eginkizunak kudeatzean eta burutzean, betiere langile, erabiltzaile, familia eta gainontzeko herritarren hizkuntza- eskubideak betetzen direla bermatuz.

Xede hori lortu ahal izateko, 2027 urtera bitarteko epean eman beharreko pausoak definitu ditu Plan Estrategiko honetan GUFEn erakundeak; bertan zehaztu dira, VII. Plangintzaldirako helburu estrategikoak eta horiek gauzatzeko egingo diren ekintzak, beraien arduradun eta epeekin.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

1. ARDATZA: KUDEAKETA

KUDEAKETAREN ERRONKA	Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea, arduradun politiko, tekniko eta zentroetako zuzendarien elkarlanaren bitartez eta euskararen erabilera sustatzeko langile guztien adostasuna eta inplikazioa bilatuz.
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK
Euskararen kudeaketa orokorra	GUFeko kudeaketa orokorrean euskararen kudeaketa txertatzea eta euskara-plana kudeatzeko sistema indartzea euskara-batzordearen operatibitate-maila handituz eta Plan Estrategikoaren zein Kudeaketa Planaren jarraipen sistematikoan azpimarra jarritz.
Lidergoa	Erakundeko arduradun politiko eta tekniko guztiek norberari dagokion arloan euskararen kudeaketa eta jarraipena egiteko erantzukizuna hartzea.
Langileak	GUFeko langile guztiek plan estrategikoa eta kudeaketa-planak ezagutzea eta euren lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak zeintzuk diren ezagutzea eta harrera-protokoloetan hizkuntzen erabilerari buruzko informazioa ematen dela bermatzea.
Gaitasuna	Langileen euskara-gaitasuna hobetzen jarraitzea lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko; ahalegin berezia eginez osasun-laguntzaileen eta zerbitzari-garbitzaileen hizkuntza-gaitasunaren hobekuntzan.
Euskararen Erabilera Sustatzeko Estrategiaren Komunikazioa	Erabiltzaile eta familiei GUFek euskararen erabilera sustatzeko duen strategiaren berri modu planifikatuan ematea eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko ekimenetan parte hartzen jarraitu (parte-hartzea sistematizatu).
Hizkuntza-klausulak	Kontratu eta hitzarmenetan txertatzen diren hizkuntza-klausulen inpaktua aztertzea eta hauen betetze-mailaren jarraipen-sistema ezartzea, lehenetasuna emanez zerbitzu-hizkuntzan eragin zuzena duten kontratu eta hitzarmenei.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

2. ARDATZA: ERABILERA

ERABILERAREN ERRONKA	Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez, erabiltzaileen eta familien hizkuntza- eskubideak bermatzea eta ahozko zein idatzizko harremanetan euskararen presentzia eta erabilera indartzea eskaintza linguistiko aktiboaren bitartez. Lan-hizkuntzari dagokionez, euskararen presentzia eta erabilera areagotzea barne- zein kanpo-harremanetan.	
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	
Irudia		Erakundearen errotuluek, argitalpenek, iragarkiek (finkoak zein behin-behinekoak) eta webguneak hizkuntza-irizpideak betetzen dituztela bermatzen jarraitzea eta euskararen presentzia areagotzea.
	Herritarrekiko harremanak	Idatzizko harremanetan, erabiltzaile eta familien hizkuntza-eskubideak bermatzea euskaraz komunikatzea hautatu duten herritarrei euskarazko hartu-emana erraztuz eta ziurtatuz prozeduren urrats eta idazki guztietan, horretarako ekimena eta proaktibotasuna erakutsiz. Ahozko harremanetan, herritarrei harrera euskaraz egiten zaiela bermatzea, eta euskarazko hartu-emana errazteko erabiltzaile mota desberdinei egokitutako estrategiak garatzea; besteak beste, eskaintza linguistiko aktiboa sustatzea, aurrez aurre nahiz telefonoz.
Lan-hizkuntza	Barne-harremanak	Langileen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioetan, bereziki lan-bileretan, barruko telefono-deietan eta langileen aurrez aurreko harremanetan, euskararen erabilera handitzea, inertiak gaindituz eta hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez.
	Kanpo-harremanak	Sektore publikoko erakundeekin harremana duten langileek euskararen erabilera areagotzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan. GUFerekiko harremanak euskaraz izatea eskatzen duten administrazioekin euskararen erabilera bermatzea. Sektore pribatuari dagokionez, enpresa hornitzaileekin euskarazko komunikazioak areagotzeko eskaintza linguistiko aktiboa egitea.
	Prestakuntza	Langile gehiagok prestakuntza orokorra euskaraz jaso dezaten eta hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, langileei euren lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko formazioa eskaintzea.
	Baliabide informatikoak	Langileei euskaraz erabilgarri dauden aplikazio informatikoak modu proaktiboan eskaintzea eta hauen erabilera sustatzea.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

**Sortze-
hizkuntza**

Langileek testu gehiago nagusiki euskaraz sortzea, sistematikoki itzultza jo gabe eta horretarako tresna eta baliabideen erabilera sustatzea.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

5.4. Adierazleen arabeko aurreikuspenak

19/2024 Dekretuaren arabera, entitate bakoitzak, hasierako diagnostikoan eta plan estrategikoan bertan, koordinaziorako beharrezkotzat ezartzen diren adierazleak sartuko ditu.

Hala, ondoren zehazten den Plan Estrategikoan, **GUFE erakundeak adostutako 2 erronkak eta 19 helburu estrategikoak erdiesteko, KEMEN markoak proposatutako 39 adierazle aukeratu ditu** (aginte-paneleko 14 adierazleez gain, beste 25 adierazle txertatuz).

Ondorengo taulan, Plan Estrategikoak biltzen dituen adierazleen egungo egoera (adierazle horren datu kuantitatiboa) eta plangintzaldi amaierarako aurreikuspena zehazten dira (hau da, zein ehunekotara iritsi nahi dugun 2027an).



KUDEAKETA: %47,8					
Kudeaketaren erronka	Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea, arduradun politiko, tekniko eta zentroetako zuzendarien elkarlanaren bitartez eta euskararen erabilera sustatzeko langile guztien adostasuna eta inplikazioa bilatuz.				
	ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK		
		ADIERAZLEAK	BISIOA		
			HASIERAKO EGOERA 2024 %	AURREIKUS. EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA: %50	GUFEko kudeaketa orokorrean euskararen kudeaketa txertatzea eta euskara-plana kudeatzeko sistema indartzea euskara-batzordearen operatibitate-maila handituz eta Plan Estrategikoaren zein Kudeaketa Planaren jarraipen sistematikoan azpimarra jarri.	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitez.	50	60	10
1.0.2 LIDERGOA: %59	Erakunde arduradun politiko eta tekniko guztiek norberari dagokion arloan euskararen kudeaketa eta jarraipena egiteko erantzukizuna hartzea.	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan. Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	50	60	10
1.0.3 LANGILEAK: %47	GUFEko langile guztiek plan estrategikoa eta kudeaketa-planak ezagutzea eta euren lanpostuari dagozkien hizkuntza-irizpideak zeintzuk diren ezagutzea eta harrera- protokoloetan hizkuntzen erabilerari buruzko informa- zioa ematen dela bermatzea.	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko. Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	53	65	12
1.0.4 GAITASUNA: %56	Langileen euskara-gaitasuna hobetzen jarraitzea lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, ahalgin berezia eginez osasun-laguntzaileen eta zerbitzari-garbitzaileen hizkuntza-gaitasunaren hobekuntzan.		51	75	24
			62	75	13
			57	70	13
			50	55	5



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VII. Plangintzaldia)

ERABILERA: %49

Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez, erabiltzaileen eta familien hizkuntza-eskubideak bermatzea eta ahozko zein idatzizko harremanetan euskararen presentzia eta erabilera indartzea eskaintza linguistiko aktiboaren bitartez. Lan-hizkuntzari dagokionez, euskararen presentzia eta erabilera areagotzea barne- zein kanpo-harremanetan.

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK			
		ADIERAZLEAK	HASIERAKO EGOERA 2024	AURREIKUS. EGOERA 2027	ALDEA igoera %
2.1.1 IRUDIA: %100	Erakundearen errotuluek, argitalpenek, iragarriek eta webguneak hizkuntza-irizpideak betetzen dituztela bermatzen jarraitzea eta euskararen presentzia areagotzea	Erakundearen errotuluek (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude. Erakundearen argitalpen, iragarri eta publizitatea euskaraz daude. Erakundeak euskaraz dauzka webgunea	98 100 100	100 100 100	2 = =
	2.1.2 HERRITARREKIKO HARRERMANAK: %56	Idatzizko harremanetan, erabiltzaile eta familien hizkuntza-eskubideak bermatzea euskaraz komunikatzea hautatu duten herritarrei euskarazko hartu-emana erraztuz eta ziurtatuz prozeduren urrats eta idazki guztietan, horretarako ekimena eta proaktibotasuna erakutsiz. Ahozko harremanetan, herritarrei harrera euskaraz egiten zaiela bermatzea, eta euskarazko hartu-emana errazteko erabiltzaile mota desberdinei egokitutako estrategiak garatzea; besteak beste, eskaintza linguistiko aktiboa sustatzea, aurrez aurre nahiz telefonoz.	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, erabiltzaileei eta familiei ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen. Eskatzen duten herritarrei, erabiltzaileei eta familiei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz. Herritarrentzako, erabiltzaileentzako eta familientzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira. Herritarrei, erabiltzaileei eta familiei euskaraz edota elebrietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. Herritarrek, erabiltzaileek eta familiek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei, erabiltzaileei eta familiei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	27 60 5 100 100	85 90 50 100 100



ARLOA	HELURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK			
		ADIERAZLEAK	BISIOA		
			HASIERAKO EGOERA 2024	AURREIKUS. EGOERA 2027	ALDEA igoera %
2.2.1 BARNE- HARREM.: %48	Langileen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioetan, bereziki lan-bileretan, barruko telefono-deietan eta langileen aurrez aurreko harremanetan, euskararen erabilera handitzea, inertziaz gaudituz eta hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez.	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	13	30	17
		Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	21	35	14
2.2.2 KANPO- HARREM.: %58	Sektore publikoko erakundeekin harremana du-ten langileek euskararen erabilera areagotzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan. GUFEReko harremanak euskaraz izatea eskatzen du- ten administrazioekin euskararen erabilera bermatzea. Sektore pribatuari dagokionez, enpresa hornitzaileekin euskarazko komunikazioak areagotzeko eskaintza linguistiko aktiboa egitea.	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	21	35	14
		Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	42	50	8
2.2.3 PRESTA- KUNTZA: %38	Langile gehiagok prestakuntza orokorra euskaraz jaso dezaten eta hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, langileei euren lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko formazioa eskaintzea.	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	40	60	20
		Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	32	45	13
2.2.4 BALIABIDE INFORMI.: %20	Langileei euskaraz erabilgarri dauden aplikazio informatikoak modu proaktiboan eskaintzea eta hauen erabilera sustatzea.	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	85	90	5
		Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	22	30	8
2.2.5 SORTZE- HIZKUNTZA: %40	Langileek testu gehiago nagusiki euskaraz sortzea, sistematikoki itzultzerako jo gabe eta horretarako tresna eta baliabideen erabilera sustatzea.	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	72	80	8
		Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	75	80	5
		Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	16	25	9
		Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.	25	50	25
		Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egi-terko behar dituzten baliabide informatikoak.	26	40	14
		Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak.	13	20	7
		Euskaraz sortzen dira dokumentuak.	40	50	10



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

6. KUDEAKETA PLANA

19/2024 Dekretuaren arabera, Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak plan estrategikoa garatzeko kudeaketa-plan bat edo batzuk egin eta onartuko ditu bi aldiz, gutxienez, plangintzaldi bakoitzean.

Era berean, Kudeaketa-planen egiturak bat etorri behar du plan estrategikoaren egiturarekin. Kudeaketa-plan horietan, plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko proposatzen diren ekintza zehatzak azalduko dira, bai eta ekintzen arduradunak, epeak eta segimendua egiteko epemugak ere.

Hortaz, GUFE erakundeak 2025-2026 aldirako Kudeaketa-plana osatu du: Ondorengo taulan ikusgai daude Plan Estrategikoan zehaztu diren helburuak erdiesteko asmoz, Kudeaketa-planak biltzen dituen ekintzak, arduradunak eta epeak.

Oinarri hau hartuta, Kudeaketa-planari etengabeko jarraipena egingo zaio GUFEko Hizkuntzen kudeaketarako zentro/etxebizitza barruko batzordean eta adostutako adierazleak kontuan izanda, ebaluazioa egin eta 2026-2027 urteetarako kudeaketa-plana adostuko da GUFEko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Nagusian.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

HELBURU ESTRATEGIKOAK		KUDEAKETA		URTEA	ARDURADUNAK
ARLOA					
1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	GUFeko kudeaketa orokorrean euskararen kudeaketa txertatzea eta euskara-plana kudeatzeko sistema indartzea euskara-batzordearen operatibitate-maila handituz eta Plan Estrategikoaren zein Kudeaketa Planaren jarraituen sistematikoa azpimarra jarri.	Planaren aurkezpenak egin Laguntza Zentro, Etxebizitza eta zerbitzu guztietan. Erakundeko egituretan plana kudeatzeko egitura adostu eta zehaztu. Urtean bitan, jarraipenak egiteko Zentroetan eta etxebizitzetan bisitak egin. Euskara Batzordean arduradun politikoaren presentzia bermatzea		2025 2025 urtero 2025	Trebakuntza eta Euskara Arloa Euskara Batzordea Trebakuntza eta Euskara Arloa Gobernu Batzordea
1.0.2 LIDERGEOA	Erakundeko arduradun politiko eta tekniko guztiek norberari dagokion arloan euskararen kudeaketa eta jarraitpena egiteko erantzukizuna hartzea.	Kudeaketa-planean jasotako ekintzak garatzeko izendatu diren arduradunek dagozkien lanak egin dituzten aztertu. Aldi berean, lanak ez badira egin neurriak jarri. Maiztasun batekin langileei dagozkien hizkuntza-irizpideen berri emateko saioak antolatu.		urtero urtero	Euskara Batzordea Trebakuntza eta Euskara Arloa
1.0.3 LANGILEAK	GUFeko langile guztiek plan estrategikoa eta kudeaketa-planak ezagutzea eta euren lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak zeintzuk diren ezagutzea eta harreraprotokoloetan hizkuntzen erabilerari buruzko informazioa ematen dela bermatzea.	"Herritarrei telefonoz edo aurrez aurre harrera egiteko gida" eta "Laguntza Zentro eta Etxebizitzetako erabiltzaile zein familiekiko harremanak euskaraz egiteko Protokoloa" langile guztien eskura jarri. Harrera linguistikoa egiteko protokoloa egin.		urtero 2025	Zentroetako/ Etxebizitzetako zuzendariak Trebakuntza eta Euskara Arloa
1.0.4 GAITASUNA	Langileen euskara-gaitasuna hobetzen jarraitzea lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko; ahalegin berezia eginez osasun-laguntzaileen eta zerbitzari-garbitzaileen hizkuntza-gaitasunaren hobekuntza.	Hizkuntza irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin eta baliabideak eskaini betetzen ez direnean. Hizkuntza teknikoak lantzeko trebakuntza antolatu. Euskara ikasten ari direnak lanean euskara erabiltzen hasteko mentoretza edo bidelagun esperientzia pilotua abian jarri. Mintza-saioak, sentsibilizazio-motbazio saioak, birziklatze saioak eta uler-saioak antolatu.		urtero 2026 2026 urtero	Trebakuntza eta Euskara Arloa Trebakuntza eta Euskara Arloa Trebakuntza eta Euskara Arloa Trebakuntza eta Euskara Arloa Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Zentroetako/ Etxebizitzetako zuzendariak



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	URTEA	ARDURADUNAK
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA- REN KOMUNIKA- ZIOA	Erabiltzaile eta familiei GUFEn euskararen erabilera sustatzeko duen estrategiaren berri modu planifikatuan ematea eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko ekimenetan parte-hartzea sistematzatatu.	Praktika onak ezagutzeko eta erakunde estrategia berriak abiatzeko ekintzak planifikatu. Intranetean "hizkuntz normalizazioa ataria" elikatu eta hizkuntza-irizpideez gain, euskara-plana, euskaraz lan egiteko baliabideak, eta euskararekin lotutako dokumentuak zintzilikatu. Euskararen egunarekin edota Euskaraldiarekin loturako ekintzak antolatu	2025 2025 urtero	Trebakuntza eta Euskara Arloa Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Informatika Arloa Zentroetako/ Etxebizitzetako zuzendariak
1.0.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratu eta hitzarmenetan txertatzen diren hizkuntza-klausulen inpaktua aztertzea eta hauen betetze-mailaren jarraipen-sistema ezartzea, lehenetsuna emanez zerbitzu-hizkuntzan eragin zuzena duten kontratu eta hitzarmenei.	Kontratu azterketa egin eta lehenetsunezkoak diren kontratuak zeintzuk diren identifikatu. Lehenetsunezko gisa identifikatu diren kontratuak hizkuntza-klausulak aztertu eta kontratura egokituak moldaketak egin. Lehenetsunezko gisa identifikatu diren kontratuen jarraipena egiteko jarraipen-sistema sortu.	2025 2026 2026	Kontratazio eta Ondare Arloa Kontratazio eta Ondare Arloa Kontratazio eta Ondare Arloa



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

ERABILERA

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	URTEA	ARDURADUNAK
2.1.1 IRUDIA	Erakundearen errotoleak, argitalpenek, iragarokiek eta webguneak hizkuntza-irizpideak betetzen dituztela bermatzen jarraitzea eta euskararen presentzia areagotzea	Laguntza Zentroetan euskarazko prentsa eskaini.	2025	Zentroetako/ Exebizitzetako zuzendariak
		Errotoleazioan irizpideak betetzen direla bermatzeko jarraipen-sistema sortu.	2025	Trebakuntza eta Euskara Arloa
2.1.2 HERRITARRERAKO HARRERMANAREN ERABILERA	Idatzizko harremanetan, erabiltzaile eta familien hizkuntza-erabilerak bermatzea euskaraz komunikatzea hautatu duten herritarrei euskarazko hartu-emanaren erraztasun eta ziurtatuz prozeduren erraztasun eta idazki guztietan, horietarako ekimena eta proaktibotasuna erakutsiz.	Herritarren hizkuntza-hautua jaso eta herritarrek aukeraturako hizkuntzan erantzun: TREBETUn erabiltzaile edota familia euskaldunak identifikatu ahal izateko egokitzapenak bideratu.	2025	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Etxebizitzetako zuzendariak
		"Plan de Vida y Apoyos" izeneko txostenaren euskarazko txantiloia sortu euskararen aldeko hautua egiten duten egoiliar eta familiek dokumentua aukeratu duten hizkuntzan kontsultatu ahal izateko.	2025	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Etxebizitzetako zuzendariak
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA	Idatzizko harremanetan, erabiltzaile eta familien hizkuntza-erabilerak bermatzea euskaraz komunikatzea hautatu duten herritarrei euskarazko hartu-emanaren erraztasun eta ziurtatuz prozeduren erraztasun eta idazki guztietan, horietarako ekimena eta proaktibotasuna erakutsiz.	Etxebizitzetan banatzen diren triptikoak euskaratu.	2025	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Etxebizitzetako zuzendariak
		Harrera-guneetan langile euskaldunak bermatzeko neurriak hartu eta hauekin hizkuntza-irizpideen lankeeta egin.	2025	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Etxebizitzetako zuzendariak
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA	Ahozko harremanetan, herritarrei harrera euskaraz egiten zaiela bermatzea, eta euskarazko hartu-emanaren erraztasun erabiltzaile mota desberdinei egokiturako estrategiak garatzea; besteak beste, eskaintza linguistikoa aktiboa sustatzea, aurrez aurre nahiz telefonoz.	Langileen lehen hitza euskaraz izateko sustapen-kampainarekin jarraitu.	2025	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Etxebizitzetako zuzendariak
		GUFE-guneren dagoen dokumentazioa aztertzen jarraitu eta ele bietan ez dagoena itzulpen zerbitzura bidali.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Informatika Arloa
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA	Idatzizko harremanetan, erabiltzaile eta familien hizkuntza-erabilerak bermatzea euskaraz komunikatzea hautatu duten herritarrei euskarazko hartu-emanaren erraztasun eta ziurtatuz prozeduren erraztasun eta idazki guztietan, horietarako ekimena eta proaktibotasuna erakutsiz.	Etxebizitzetan haurrei zuzendutako ekintza ludiko gehiago euskaraz antolatzea eta eskaintzari jarraipena egin.	urtero	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Etxebizitzetako zuzendariak



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	URTEA	ARDURADUNAK
2.2.1 BARNE- HARRE- MANAK	Langileen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioetan, bereziki lan-bileretan, barruko telefono-deietan eta langileen aurrez aurreko harremanetan, euskararen erabilera handitzea, inertiak gaindituz eta hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez.	Mungia etxebizitzara eta Mundakako laguntza zentroetara bideratzen den barne-dokumentazioa euskaraz hutsez bidaltzen dela bermatu.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Kudeaketa Administrazioaren Arloa
		Hizkuntza-ohituretan eragiteko jarduerak antolatu: Berbasarea, elkarrizketa elebidunak, eta sentsibilizazio-motibazio saioak.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Zentroetako/Etxebizitzetako zuzendariak
2.2 LAN HIZKUNTZA	Langileen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioetan, bereziki lan-bileretan, barruko telefono-deietan eta langileen aurrez aurreko harremanetan, euskararen erabilera handitzea, inertiak gaindituz eta hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez.	Mundakako Laguntza Zentroan arnaguneak antolatzeko lanketa pilotua abiatu	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Mundakako Laguntza Zentroko zuzendaria
		Lan-bileren mapa osatu, euskaraz ere egin daitezkeenak identifikatu eta haueetan bilera elebidunak izateko aukera sustatu.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Zentroetako/Etxebizitzetako zuzendariak
		Parteak eta <i>Jarraipenak</i> euskaraz egin ahal izateko protokoloa diseinatu eta martxan jarri.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Zentroetako/Etxebizitzetako zuzendariak
		Langileen artean euskararen erabilera sustatzeko motibazio ekintzak garatu.	urtero	Trebakuntza eta Euskara Arloa
2.2.2 KANPO- HARRE- MANAK	Sektore publikoko erakundeekin harremana duten langileek euskararen erabilera areagotzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan. GUFEREKIKO harremanak euskaraz izatea eskatzen duten administrazioekin euskararen erabilera bermatzea. Sektore pribatuari dagokionez, enpresa hornitzaileekin euskarazko komunikazioak areagotzeko eskaintza linguistiko aktiboa egitea.	Harremanen-mapa egin eta euskaraz izan daitezkeen harremanetan, euskaraz erabiltzen hasi. Mapan zehaztuko dira GUFEREKIKO harremanak euskaraz izatea eskatu duten administrazioak hauekin komunikazioak euskaraz bermatu ahal izateko.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa, Arloetako buruak eta Zentroetako zuzendariak
		Euskarazko prestakuntza orokorrean izena ematea sustatu.	urtero	Trebakuntza eta Euskara Arloa



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

2.2.3 PRESTA- KUNTZA	Langile gehiagok prestakuntza orokorra euskaraz jaso dezaten eta hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, langileei euren lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko formazioa eskaintzea.	Prestakuntza eskaintza hedatu: Birziklatze ikastaroak eta uler-saioak eskaini.	urtero	Trebakuntza eta Euskara Arloa
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	URTEA	ARDURADUNAK
2.2.4 BALIABIDE INFORMA- TIKOAK	Langileei euskaraz erabilgarri dauden aplikazio informatikoak modu praktikoan eskaintzea eta hauen erabilera sustatzea.	Euskarazko bertsioak instalatzeko eta erabiltzeko sustatze-lana egin. Urtero baliabide informatikoen euskarazko bertsioak erabiltzen dituzten langile kopurua neurtu.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa eta Informatika Arloa
2.2.5 SORTZE HIZKUN- TZA	Langileek testu gehiago nagusiki euskaraz sortzea, sistematikoki itzultzerako gabe eta horretarako tresna eta baliabideen erabilera sustatzea.	Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko formazioa eskaini. Idazkide zer den azaldu eta tresnaren erabilera sustatu. Zerbitzuetan gehien erabiltzen den dokumentazioa aztertu, eta hauek euskaraz sortzeko gomendioak prestatu.	2026	Trebakuntza eta Euskara Arloa



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

7. HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN ETA DERRIGORTASUN DATEN EZARPENA

7.1. Lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunak

19/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrrak ezartzen duenaren arabera, lanpostu-zerrendetan ezarritako hizkuntza-eskakizunak honela izendatuko dira aurrerantzean:

HE	Irakurmena eta idazmena	Entzumena eta mintzamena
1.HE	B1	B1
2.HE	B2	B2
3.HE	C1	C1
4.HE	C2	C2

Horrenbestez, lanpostu-zerrendan berezita jasoko dira, batetik, lanpostu bakoizari esleitutako idazmena eta irakurmena trebetasunak, eta, bestetik, mintzamena eta entzumena trebetasunak.

7.2. VII. Plangintzaldiko derrigortasun-indizea

19/2024 Dekretuaren 25.1 artikulua arabera, derrigortasun-indizeak adierazten du entitate bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopuru osoaren ehunekoa.

Honela kalkulatu da derrigortasun-indizea: $DI = EUSKALDUNAK + (IA - EUSKALDUNAK/2)$

EUSTATEk eman dituen 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, honako



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

7.3. VII. Plangintzaldirako derrigortasun-datak esleitzeko irizpideak

Plan estrategiko honetan Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak finkatzen dituen helburuak kontuan izanda eta otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeoak, derrigortasun-indizeari eta derrigortasun-datak esleitzeari buruz ematen dituen jarraibideak kontuan hartuta, plan honen indarraldiak dirauen bitartean derrigortasun-datak ezarriko dira honako kasu hauetan:

1. Zentroetako eta etxebizitzetako zuzendaritza eta laguntza arloan sortzen diren lanpostu berrietan.
2. Egoitza harrera unitatean sortzen diren lanpostu berrietan.
3. Zentroetako administrazioaren eta zerbitzuaren arloan sortzen diren hurrengo lanpostu sortu berrietan: atezaina mantentze lanetako laguntzailea, atezaina mantentze lanetako behargina, mandataria, menpekoa.
4. Euskara lan-hizkuntza izan dadin urratsak ematen jarraitzeko, derrigortasun-datak ezarri ahal izango dira zeharkako izaera duten lanpostu sortu berrietan, ondoren adierazten diren arloekin lotura daukatenean:
 - Gai juridikoekin zerikusia duten lanpostuetan.
 - Langileen kudeaketarekin zerikusia duten lanpostuetan, baita ekonomia eta aurrekontu arloko lanpostuetan eta kontratazio eta ondare arloko lanpostuetan,. VII. Plangintzaldirako GUFeri dagokion derrigortasun-indizea kontuan izanda, aipatutako lanpostuetan derrigortasun-datak ezarriko dira administrazio-unitateko lanpostuen %50ek gutxienez derrigortasun-data duela bermatu arte, arloko burua barne delarik.
5. Oro har, VII. Plangintzaldian hutsik geratzen diren lanpostuen kasuan, hau da, titularrik ez duten lanpostuen kasuan, derrigortasunaren ezarpena berrikusiko da aurreko kasuetan ezarri diren irizpideen arabera. Lanpostu huts batek ez baditu betetzen aipatutako irizpideak, ez zaio ezarriko derrigortasun-datarik, eta lehendik esleituta badauka, aldatu egin ahal izango zaio.

8. PLANA GARATZEKO EGITURAK

Euskararen Erabilera Normalizatzeako Plan Estrategikoa eta Kudeaketa-planak garatzeko honako egitura hauek osatuko dira:



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

8.1. GUFeko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Nagusia

GUFEn euskararen erabilera normalizatzeko planaren jarraipen organoa izango da.

Honakoak izango dira partaideak:

- Batzordeburua: GUFeko kudeatzailea.
- Batzordekideak:
 - Zerbitzu orokorren zuzendaria
 - Laguntza zerbitzuen zuzendaria
 - Hizkuntza Normalizazio Ataleko burua.
 - Trebakuntza eta euskara arloko arduraduna
 - Sindikatuetako ordezkari bat
- Idazkaria: Zerbitzu orokorren zuzendaritzako teknikari bat, hitzarekin baina botorik gabe.

Hizkuntza Ofizialen Batzorde Nagusia urtean behin bilduko da, gutxienez, eta, bestek beste, honako eginkizun hauek izango ditu:

- GUFeko hizkuntza normalizazioaren egoera aztertzea eta azterketa hori oinarri hartuta, proposamen berriak egitea.
- Plana aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen laguntzea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak zerbitzuetan betetzen direla zaintzea eta berriak proposatzea.
- Plana jarraitzea eta ebaluatzea.

8.2. Hizkuntzen kudeaketarako zentro/etxebizitza barruko batzordea

Zentro, etxebizitza eta zerbitzu guztietan hizkuntzak kudeatzeko batzorde bat egongo da. Euskara Arloaren gidaritzarekin arituko da eta beretan parte hartuko dute Zuzendaritza (zentroan, planaren arduraduna izango dena) eta kategoria profesional guztietako ordezkariak.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

Besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu:

- Urte bakoitzean, zentroan/etxebizitzan/zerbitzuan egingo diren ekintzak ezartzea, planaren helburu orokorrak lortzeko.
- Zentroan/etxebizitzan/zerbitzuan urteko ekintza-plana bultzatzea.

Bilerak, gutxienez, sei hilabetean behin izango dira.

9. PLANA GARATZEKO BALIABIDEAK

9.1. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 63/2019 Foru Dekretuaren bidez ezartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Xedapen orokorretako 2. artikuluan foru-dekretuan jasotako arauak eta irizpideak aplikatzeko eremua ezartzen da, hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiak eta haren erakunde autonomoak. Halaber, foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeek foru-dekretu honetan ezarritako irizpideak aplikatu beharko dituztela aipatzen da, bakoitzaren ezaugarri berezien arabera egokituta, beharrezkoa bada, eta bakoitzaren eskumen-eremuen barruan.

Gauzak horrela, GUFEk 63/2019 Foru Dekretuko irizpide eta arauak¹ bere egin ditu eta erakundearen ezaugarrien arabera egokituko ditu VII. Plangintzaldian.

GUFeko hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak erakundearen zabaldu eta web-atarian eta intranetan argitaratuko ditu, 19/2024ko Dekretuak ezarritakoa betez.

Beti ere, GUFek bere egiten dituen HOElen xede izango dira:

- **Herritarren, erabiltzaileen eta familien hizkuntza-eskubideak bermatzea** eta hizkuntza

¹ Honako estekan daude argitaratuta Bizkaiko Foru Aldundiko erakunde autonomo eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan, 63/2019 Foru Dekretuaren bidez aplikatu beharreko irizpideak:
<https://gardentasuna.bizkaia.eus/documents/1261696/4902868/04+07+DF+63-2019+eusk.pdf/2f3828ed-7ca7-dab2-ff2b-54044b5a2562?t=1572260636570>



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

berdintasuna lortzea herritar, erabiltzaile, familia horiek GUFEEkin harremanetan jartzen direnean, horretarako behar diren ekintzak bultzatuz eta xede hori eragozten duten oztopoak gaindituz.

- **Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea GUFE osoan** euskara ere zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin.
- GUFE euskararen normalizazioan eredu izatea eta **jarraibideak eskaintzea**.

Horrez gain, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen jarraipena eta haien betetze-maila erakundearen sistematizatzeko urratsak ezarriko dira Kudeaketa-planen bitartez.

9.2. Langileen hizkuntza-prestakuntza

GUFeko langileen euskara-gaitasun teorikoa handia den arren, praktikan zailtasun ugari izaten da eguneroko jardunean euskara behar adinako erraztasunez eta konfiantzaz erabiltzeko. Ezagutzatik erabilerara dagoen jautzia gainditzeko, langileen euskara-gaitasuna faktore garrantzitsua da dudarik gabe, eta horretan jarraitu beharra dago VII. Plangintzaldian ere.

Hala, GUFE erakundeak hizkuntza-baliabideak eta prestakuntza eskainiko dizkie langileei euskaraz lan egiten laguntzeko eta VI. Plangintzaldiko erabilera-planean ezarritako bideari jarraiki, langileen hizkuntza prestakuntzak bi ardatz nagusi izango ditu:

- Alde batetik, euskalduntzeko ikastaroak eskainiko dira langileek hizkuntza- gaitasuna lortzeari begira, betiere GUFEk IVAPekin duen hitzarmenaren barnean eta horretarako dituen baliabide eta bitartekoen barnean. Ikastaro horiek euskaltegietan egingo dira, eta IVAPek herri-administrazioei zuzendutako deialdietan ezartzen dituen baldintzen arabera eskaini eta gauzatuko dira.
- Beste aldetik, erabilera sustatzeko prestakuntza eskainiko da hizkuntza- eskakizuna lortuta daukaten langileei begira. Hala, bada, lanpostuan euskararen erabilera sustatzeko prestakuntzaren helburu nagusia da ekintza-planetako helburuak lortzen laguntzea.

**GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)****9.2.1. Euskalduntzeko ikastaroak, hizkuntza eskakizunak egiaztatu ditzaten**

Prestakuntza honen helburua da GUFeko langileen hizkuntza- gaitasuna areagotzea euskaltegietan emandako euskara-ikastaroen bidez, betiere hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko helburuarekin.

Nori zuzenduta dago hizkuntza-prestakuntza?

Hizkuntza-prestakuntza GUFeko langile guztiei zuzenduta dago.

Hala ere, GUFeko langile guztiek ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta, horren ondorioz, aukerak eta lehentasunak ezberdinak izan behar dira, langile bakoitzak duen kontratu-motaren arabera eta lanpostu bakoitzak ezarria duen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-dataren egoeraren arabera.

Bi egoera horiek kontuan izanda, eta hizkuntza-prestakuntzako ikastaroen eskaintza antolatu nahian, GUFeko langileak multzo edo talde hauetan banatu dira.

Taldea	Egoera	Lan-Harremana
I. TALDEA	Dedikaziorik gabeko GUFeko langileak.	Karrerako funtzionarioak. Mugagabeko lan-kontratu arrunta duten langileak
II. TALDEA	Dedikaziorik gabeko GUFeko langileak, lanpostuan derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna badute	Lanpostu hutsa edo honen parekoa betetzen ari diren bitarteko langileak. Zatikako erretiroagatik txandakako lansaio osoko kontratua duten langileak Lansaio murriztua duten mugagabeko lan-kontratu duten langileak Aldi baterako lan-kontratuko langileak, baldin eta, kontratuaren amaiera-data, gutxienez, ikastaroen deialdiaren urteko abenduaren 31 bada
III. TALDEA	Dedikaziorik gabeko GUFeko langileak, betiere II. taldean sartuta ez badaude	Lanpostu hutsa edo honen parekoa betetzen ari diren bitarteko langileak. Zatikako erretiroagatik txandakako lansaio osoko kontratua duten langileak Lansaio murriztua duten bitarteko langileak Lansaio murriztua duten mugagabeko lan-kontratu duten langileak Zatikako erretiroagatik zatikako aldi zehatz baterako kontratua duten langileak



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

		Aldi baterako lan-kontratuko langileak, baldin eta, kontratuaren amaiera-data, gutxienez, ikastaroen deialdiaren urteko abenduaren 31 bada Hizkuntza-prestakuntza pertsonalizatuan sartu nahi ez duten langileak
IV. TALDEA	Dedikazioa duten GUFeko langileak	



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

Aurreko atalotan aipatutako kontratu-motetako bat ez duten gainerako langileak ez dira ikastaroen eskaintzan sartzen.

Horrez gain, IVAPek urtero egiten duen deialdian ezartzen diren baldintzak ere kontutan hartuko dira ikastaroetarako baimenak emateko orduan.

Salbuespen legez, beren taldeko ikastaroetara joateko ezintasuna behar bezala egiaztatzen duten langileek, beste talde batzuentzako ikastaroetara joateko eskabidea egin ahal izango dute, baina dagokien Zuzendaritzaren baimenarekin eta Euskara Arloa eta Euskara Zuzendaritza Nagusiaren adostasuna jaso beharko dute.

Nolanahi ere, etorkizunean beste kontratu-motarik sortzen bada, halako kontratu mota berri baten bidez kontratatzen diren pertsonak talde batean edo bestean sartuko dira, berez egin zaien kontratu-motaren ezaugarri berezien arabera, kontratuaren iraupenaren arabera, prestazioa gauzatu behar den urteko sasoiaren arabera eta kontratazioak ukitutako unitatearen zuzeneko antolaketa eragin dezakeen beste edozein ezaugarriaren arabera.

Ikastaroen eskaintza betiere Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan dauden aurrekontu-zuzkidurei lotuta egongo denez gero, ikastaro horiek finantzatzeko dauden ekonomia-baliabideak une bateko ikastaro-eskariari erantzuteko nahikoak ez direnean, hurrengo lehentasun-hurrenkerari jarraituz egingo da ikastaroetako langileen onarpena:

1. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.
2. Dedikazioa duten lan kontratu finkoko langileak, derrigortasun data izan zein ez.
3. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ez duten lan-kontratu finkoko langileak, dedikaziorik gabekoak.
4. Lan kontratu finkoko langileak, berez beren lanpostuei dagokiena baino goragoko euskalduntze edo alfabetatze maila lortzeko. Atal honetan lehentasuna izango dute goragoko kategoriako lanpostuan ari direnek.
5. Aldi bateko lan kontratuko langileak, betetzen ari diren lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizuna lortu arte. Atal honetan, lehentasuna izango dute lanpostu hutsa bete arte lanpostu horretan ari direnek.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

Hala ere, ehunekoak betetzea eta ikastaroetara joatea erakundearen antolaketari egokitu beharko zaizkio; jarduketa arlo bakoitzaren % 50 errespetatu behar da plangintzaldiak iraua bitartean, zerbitzuen beharizanen arabera. Hau da lehentasunen hurrenkera:

- 1) Hizkuntza trebakuntzaren jarduera planean dagoena
- 2) Euskararen ezagutza maila altuena egiaztatuta duena.
- 3) Lanpostuan antzinasun gehien duena
- 4) Aldez aurretik erakundearen antolaketa arazoengatik ezetza hartu duena.

Amatasun eta aitatasun, babes eta adopzioagatiko lizentzia-bajei dagokienez, egoera horietako batean dauden langileek, trebakuntzako bestelako ikastaroekin gertatu ohi denez, GUFEn gainerako trebakuntza-ikastaroetarako baldintza beretan egin ahal izango dituzte euskara-ikastaroak.

Euskara ikasteko eskaintza orokorra

GUFek bere langileei egiten dien ikastaroen eskaintza IVAPek ikasturte bakoitzean onartutakoaren arabera izango da.

Nolanahi ere, GUFeko langileak ikastaroen eskaintzaz baliatu ahal izango dira, baldin eta esleitu zaien ordu-kredituan aldeko saldoa badute eta ez badute 3. HE egiaztatuta.

4HE ikastaroak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da langileak 3. HE egiaztatuta izatea eta betetzen ari den lanpostuak 3. HE izatea esleituta.

Beharrezkoa den kasuetan, IVAPek mailaketa-proba egitera deituko du eskatzailea. Mailaketa-probara aurkeztu ezik, bertan behera utziko da ikastarorako eskabidea.

IKASTAROEN ESKAINTZA ETA BALDINTZA ZEHATZAK

Euskara-ikastaroen eskaintza bi multzotan banatzen da:

- a) Ikasturtean zehar egiten diren ikastaroak ("neguko ikastaroak" deitzen direnak)
- b) Udako ikastaroak

Bi multzo horien xehetasunak ematen dira segidan:



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

A) IKASTURTEAN ZEHAR EGITEN DIREN IKASTAROAK (NEGUKO IKASTAROAK)

A.1. Lanorduen barruko ikastaroak

Oro har, IVAPek ezarriko du langile bakoitzak ikastaroa zein euskaltegitan egin behar duen. Halaber, IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera datak, baita jaiegunak ere.

A.1.a. Barnetegiko ikastaroak

Hartzaileak:

I. taldeko langileak, betiere titular diren lanpostua betetzen badute.

Baldintzak:

- Ikastaro mota hau barnetegi batean egin beharko da oso-osorik; beraz, ez da onartuko bestelako modalitatearik (pentsio erdia, esaterako).
- Ikastaroek lau hileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera). Barnetegiko ikastaroak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da euskalduntzeko 3. urratsa gainditurik edukitzea.
- Joan-etorriek sortutako gastuei dagokienez, asteko bidaia bat (joan-etorria) ordainduko da. Hilaren amaieran, langileak Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari aurkeztu beharko dio eragindako gastuen kitapena. Kitapen horrek Euskara Arloaren oniritzia izan beharko du.
- IVAPek bere urteroko deialdian zehaztuko ditu barnetegiko ikastaroen iraupena eta egutegia, eta ikastaroak egin ahal izateko behar den gutxieneko hizkuntza-maila.
- Ikastaro hauetara doazen langileak lansaio osotik salbuetsita egongo dira.

A.1.b.. Bost orduko ikastaroa

Hartzaileak

I. taldeko langileak, betiere, titular diren lanpostua betetzen badute.

Baldintzak

- Ikastaro hauetara doazen langileak lansaio osotik salbuetsita egongo dira. Horrenbestez, ikastaroak dirauen bitartean, langileek ez dute fitxatu beharko, baina puntualitatea zorrotz beteko dute eta ez dute ordutegiaren malgutasunik izango ez ikastarora sartzean ez ikastarotik irteteen.
- Ikastaroek lau hileko iraupena izango dute (urritik otsailera eta otsailetik ekainera); IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

Neguko Barnetegiko eta 5 orduko ikastaroen arautegia:

- Ordu-kreditua ikastaroan zehar kontsumituz joango da eta horretarako hileroko emandako ikastorduetan zenbatuko dira. Ikasleari dagokion taldearen lehen ikastaro-egunetik egingo da zenbaketa hori, ikasturtearen amaiera arte edo, bestela, ikasleak ikastaroan behin betiko baja hartu arte. Hau da, pertsona bat bajaran badago ordu kreditua kontsumitzen jarraitzen du ikastaroan behin betiko baja hartu ezik. Alta hartu eta gero ikastarora hastea eskatu behar du, IVAPek ezartzen duen mailako taldean.
- Euskara ikastaroa hasi ahal izateko, nahitaezkoa izango da ordu-kreditu positiboa edukitzea. Pertsona bati ikastaroan zehar kreditua agortzen bazaio, ikastaroa amaitu arte jarraitu ahal izango du. Nolanahi ere, hizkuntza-eskakizuna gaindituz gero, demagun B2. HE, eta ikasleak goragoko hizkuntza-eskakizuneko hizkuntza-trebakuntza jasotzen jarraitu behar badu, demagun C1. HE; ordu-kredituaren saldoa agortu denez, C1. HEeko trebakuntza orduetara kenduko zaie.
- Pertsona bati ordu-kreditua dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu gabe agortu zaionean, ez zaio onartuko Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan honen itzalpean finantzaturako euskara ikastaroetarako eskabide berririk. Dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditzen denean, berriz, arautegi honen itzalpeko beste euskara-ikastaro bat egin daiteke.
- Hizkuntza-eskakizun bakoitzerako ezarritako ordu-kredituak erabili ahal izateko, ikasleak IVAPek deitutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketa ofizialetara aurkezteko konpromisoa hartzen du.
- Eskola-orduetatik kanpo hartuko dira arauzko oporrak, norberak har dezakeen aukerako 11 egun libreak izan ezik.
- Bulego ordutegiko ikasleek ezin izango dute Gabon eta Aste Santu txandetako egunak hartu horietarako zehatuta dauden epeetatik kanpo eta, beti ere, eskola gabeko egunak kontuan hartuta. Egutegi bereziko ikasleei (txandako lanaldia) txanda horiek euren ordu poltsatik, lizentzietatik edo oporretatik kenduko zaizkie.
Lauhileko ikastaro biak jarraian egiten badira (urritik otsailera eta otsailetik ekainera) bi epe hauetako tarteko asteburuan ez da lanera joan behar, karteldegian hala egokitzen bada.
- Euskara ikastaroa egiten den ordutegian ezin daiteke bestelako ikastarorik egin. Derrigorrezko prestakuntzarako ikastaroak salbuespenetatik hartuko dira, zerbitzuburuak aldeztuz horrela adieraziz gero.
- Justifikazio gabeko ez bertaratzeak lanera ez agertzeagatik faltatzen joko dira.
- Kontrola hilabetero egingo da. Asistentzia hutsak egonez gero, interesatuari komunikatuko zaio eta 4 eguneko epea izango du justifikatu ahal izateko; horrela egin ezean Antolaketa zerbitzura bidaliko da abisua, deskontua egin dezan.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

- Gaixotasun baja: bajak eta altak Zentroan tramitatuko dira eta horien kopia aurkeztuko da Hizkuntza Normalizazioko Atalean.
- Ikastaroan baja emotea: bajaren benetako data baino hiru egun lehenago jakinarazi behar da Euskara Arloan, «gufe.trebakuntza» postontzira mezu elektronikoko bat bidalita edo idatzi bat erregistroan aurkeztuta. Euskaltegiari ere jakinarazi egin behar dio. Euskara Arloak Hizkuntza Normalizazioari jakinaraziko dio eskolak utzitako data aurrerantzean ordu-krediturik ez kentzeko.
- Gorabeherak, oporrak eta lizentziak norberaren zentroan tramitatuko dira eta horien kopia aurkeztuko da Hizkuntza Normalizazio Atalean.

5 orduko eta neguko barnetegiko euskara ikastaroak: norberaren aukerako egunak eskatzeko Irizpideak:

- Eskabide-orria lan-zentrora eraman behar da; orrian «5 orduko euskara ikastaroa edo neguko barnetegia» adierazi.
- Aipatutako egunak euskaltegiaren egutegiaren arabera eskatuko dira, zentroko arautegian ezarritako eran eta epean.
- Eskaera Zerbitzu Zentraletako ordutegi kontrolean grabatuko da.
- Zerbitzu Zentraletako ordutegi kontrolean ondoko kenketa egingo zaie langileei eskatzen duten egun bakoitzeko:
 - Lanaldi jarraitua dutenei:
 - Astean arratsalde batez lan egiten dutenei: 7 ordu eta 15 minutu.
 - Goizez bakarrik lan egiten dutenei:
 - I. Modalitatea: 7 ordu eta 33 minutu.
 - II. Modalitatea: 7 ordu eta 30 minutu.
 - Zentroetan eta etxebizitzetan txandaka lan egiten dutenei:
 - 2 txandatan ari direnei: 7 ordu.
 - 3 txandatan ari direnei: 8 ordu.
- Eskabide-orriaren kopia bat, dagokion burutzaren oniritzia duena, Hizkuntza Normalizaziora bidali behar da (hizkuntz.normalizazioa@bizkaia.eus).



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

A.1.c. Bi orduko ikastaroak lanorduen barruan

Hartzaileak

I. II. eta IV. taldeko langileak, betiere, txandako lan saioa ez badute eta titular diren lanpostuak betetzen badituzte.

Baldintzak

- Ikastaro hauek doazen GUFeko langileek fitxatu egingo dute lanlekura heltzen direnean, euskaltegitik itzulitakoan.
- Ikastaroen ordutegia: dedikazioa ez duten langileen kasuan, goizeko lanorduen barruko ikastaroak, beranduen, 10:00etan amaitu beharko dira.
- Dedikazioa duten langileen kasuan, goizez edo arratsaldean egin ahal izango dira. Goizez eginez gero, beranduen, 10:00etan amaitu beharko dira. Arratsaldean eginez gero, 6 orduko jarduna egin beharko da, ezarritako muga mugan barruan. Goizeko lan saioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.
- Ikastaro hauek ikasturte osoa iraungo dute (urritik ekainera); IVAPek zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere.

A.1.d. C2C2 HE prestatzeko ikastaroak lanordu barruan

Hartzaileak

I., II. eta IV. taldeko langileak, betiere, txandako lan saioa ez badute eta titular diren lanpostuak betetzen badituzte eta honako hau betetzen badute: betetzen ari diren lanpostuan C1C1. HE izatea ezarrita, hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa izan nahi ez. Horrez gain, ikastaro mota hau egin ahal izateko, C1C1. HE egiaztaturik eduki beharko dute edo horren baliokide den agiriren baten jabe izan beharko dute.

Ikastaroen iraupena IVAPek zehaztuko du, urtero egiten duen deialdian. Oro har, ikastaroek urritik ekainera arteko iraupena izaten dute.

A.2. Lanorduetatik kanpoko ikastaroak

Ikastaro hauek egin behar den gutxienezko ordu-kopurua IVAPek bere urteroko deialdietan ezartzen dituen muga arabera izango da.

Ikastaro hauek edozein euskaltegi homologatutan egin ahal izango dira, publikoa nahiz pribatua, eta interesatuak berak aukeratu du zehazketan egin.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

Hartzaileak

I., II., III. eta IV. taldeetako langileak. Lan saio murriztua duten bitarteko langileak ikastaro mota hau egin ahal izango dute, betiere lan kontratuaren iraupena ikasturte osokoa bada.

Baldintzak

- Ikastaro-mota honetan interesatuta dauden pertsonen lan-ordutegitik kanpoko orduetan egin beharko dute ikastaroa.
- Ikastaro-mota honek ikasturte osoa iraungo du (urritik ekainera). IVAPEk zehaztuko ditu ikastaroen hasiera eta amaiera, baita jaiegunak ere.
- Ikastaro mota honetan ez dago ordutegiaren malgutasunik.

Langileen ordutegia ikastaroa duten egunetan

- *Astean arratsalde baten lan egiten duten*: sei orduko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen. Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.

Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude, betiere dagokien arratsaldean eskola baldin badute.

- *Goizez bakarrik lan egiten duten sei orduko eta hogeituroko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan*. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen. Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.
- *Zatitutako lansaioa langileentzat*: sei orduko eta hogeituroko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen. Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.
- *Txandakako lansaioa lanaldi osoan*: GUFEk langilea benetako lanaldian dagoenean eskolara joaten den ordu-kopuruaren erdia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira.
- *Txandakako lansaioa lanaldi murriztuan*: GUFEk, aukeratutako murrizketaren arabera, pertsona horrek hartzen dituen ordu kopuru horien erdia kontuan hartuko du, eta horietatik, proportzionala izango den zatia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira, betiere



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

ikastaroa egitea ahalbidetu duen kontratuaren barruan.

A.2.a. C2C2 HE prestatzeko ikastaroak lanorduz kanpo

Hartzaileak

I., II., III. eta IV. taldeetako langileak. Lan saio murriztua duten bitarteko langileak ikastaro mota hau egin ahal izango dute, betiere lan kontratuaren iraupena ikasturte osokoa bada.

Honako hau bete behar dute: betetzen ari diren lanpostuan C1C1 HE izatea ezarrita, hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa izan nahi ez. Horrez gain, ikastaro mota hau egin ahal izateko., C1C1. HE egiaztaturik eduki beharko dute edo horren baliokide den agiriren baten jabe izan beharko dute.

Langileen ordutegia ikastaroa duten egunetan

- *Astean arratsalde baten lan egiten duten*: sei orduko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen. Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.
Langile hauek berez dagokien astean behineko arratsaldetik salbuetsita daude, betiere dagokien arratsaldean eskola baldin badute.
- *Goizez bakarrik lan egiten duten sei orduko eta hogeituro minutuko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan*. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.
Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.
- *Zatitutako lansaioko langileentzat*: sei orduko eta hogeituro minutuko jarduna, ezarritako malgutasun-mugen barruan. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.
Ikastaroa udako ordutegian suertatzen denean, eguneko jarduna bost ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen.
- *Txandakako lansaioa lanaldi osoan*: GUFEk langilea benetako lanaldian dagoenean eskolara joaten den ordu-kopuruaren erdia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira.
- *Txandakako lansaioa lanaldi murriztuan*: GUFEk, aukeratutako murrizketaren arabera, pertsona horrek hartzen dituen ordu kopuru horien erdia kontuan hartuko du, eta horietatik, proportzionala izango den zatia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira, betiere ikastaroa egitea ahalbidetu duen kontratuaren barruan.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

A.2.b. Autoikaskuntza ikastaroak

Hartzaileak

Txandakako lan saioa egiten duten I, II, III taldeko langileek. Lan saio murriztua duten bitarteko langileek ikastaro mota hau egin ahal izango dute, betiere lan kontratuaren iraupena ikasturte osokoa bada.

Baldintzak

Lanorduetatik kanpo egin beharko dira. IVAPek zehaztuko ditu, bere urteroko deialdietan, autoikaskuntzarako onartu ahal izango den eskabide-kopurua eta ikastaroan egin behar den gutxienerako ordu-kopurua. Ez du konpentsaziorik sortuko.

B) UDAKO IKASTAROKAK

Udako ikastaroen xedea da ikasleek ikasturtean zehar eskuratu dituzten ezagupenak finkatzea. Udako ikastaro bat egin ahal izateko, aurretik IVAPen deialdiaren barruko ikastaroren bat egin behar da ikasturtean zehar, betiere GUFEn oniritziarekin.

Udako ikastaroak uztailean, abuztuan edo irailean egingo dira.

IVAPek zehaztuko du, bere urteroko deialdietan, udako ikastaroetan egin behar den gutxienerako ordu-kopurua eta ezartzen dituen mugen arabera izango da.

B.1. Lanorduen barruko udako ikastaroak

B.1.a. Udako ikastaroak barnetegian

Barnetegiko ikastaro bakarra egin ahal izango da uda bakoitzean.

Barnetegiko udako ikastaroen ezaugarriak

Oso-osorik barnetegi batean egin behar dira; beraz, ez da onartuko bestelako modalitatekin (pentsio erdia, esaterako), ez eta asteburuetan etxera etortzerik ere.

Baldintzak

- Barnetegira doazen langileak lanetik aske geratuko dira ikastaroak iraun bitartean.
- Joan-etorriek sortutako gastuei dagokienez, bidaia bakarra ordainduko da ikastaroan (joan-etorria). Langileak Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzari aurkeztu beharko dizkio joan-etorriek eragindako gastuen kitapena. Kitapen horrek Euskara Arloaren oniritzia izan beharko du.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

B.2. Lanorduz kanpoko udako ikastaroak

B.2.a. Udako ikastaro trinkoak

Baldintzak

- Ikastaroak lanorduetatik kanpo egin beharko dira.

Egin beharreko lansaioa

Udako lansaioa duten langileen eguneko jarduna bost (5) ordukoa izango da. Lansaioa ezingo da amaitu 13:30ak baino lehen. Gainerako kasuetan, eguneko jarduna sei (6) ordu eta hogeita (20) minutukoa izango da, ezarrita dauden malgutasun-mugen barruan. Lansaioa ezingo da amaitu 14:00ak baino lehen.

- *Txandakako lansaioa lanaldi osoan:* GUFEk langilea benetako lanaldian dagoenean eskolara joaten den ordu-kopuruaren erdia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira.
- *Txandakako lansaioa lanaldi murriztuan:* GUFEk, aukeratutako murrizketaren arabera, pertsona horrek hartzen dituen ordu kopuru horien erdia kontuan hartuko du, eta horietatik, proportzionala izango den zatia konpentsatuko du, behar dan ziurtagiria zentroan aurkeztuz. Ordu hauek urria-ekaina ikasturtea bukatzen den urteko abenduaren 31ra arte hartu ahal izango dira, betiere ikastaroa egitea ahalbidetu duen kontratuaren barruan.

9.2.2. Lanpostuan euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza

VII. Plangintzaldian GUFEk bultzada egokia ematen jarraitu nahi du euskara zerbitzuetan lan-hizkuntza eta harreman-hizkuntza ere izan dadin. Hizkuntza-gaitasuna izateak edo lanpostuaren HE egiaztatuta izateak berez ez du esan nahi euskara administrazio-atal baten lan-esparruan erabiltzen denik. Hori dela eta, komenigarria da baldintza egokiak sortzen eta langileei beharrezkoak diren bitartekoak ematen jarraitzea, langileak haien eginkizunak euskaraz ere egiteko gai izan daitezen, egoerak hala eskatzen duenean.

Horrenbestez, euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen erabilera sustatzera bideratutako bitartekoak banatzeko, VII. Plangintzaldian honakoak egingo dira:



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

- SENTSIBILIZAZIO-MOTIBAZIO SAIOAK 1
- SENTSIBILIZAZIO-MOTIBAZIO SAIOAK 2
- BIRZIKLATZE-SAIOAK
- IKASTAROA. BALIABIDE INFORMATIKOAK EUSKARAZ
- ULER-SAIOAK

Programa horien baldintzak eta ezaugarriak egokitu ahal izango dira, erabileraren ikuspuntutik eragingarriagoak izan daitezen.

Aipatutako ikastaroez gain, plangintzaldian zehar beste ikastaro eta programa batzuk eskaini ahal izango dira, langileen kasuan kasuko beharrezanean erantzun ahal izateko.

Hartzaileak:

Langile finkoak, sindikatu-liberatuak, lanpostu hutsen estaldurak, plana onartu aurreko urtetik eta ikastaroa hasi arte lau hilabeteko edo gehiagoko kontratu-harreman jarraitua edo etena duten aldi baterako langileak; amatasun-, aitasun-, adopzio- edo harrera-kontratua, eta euskara ikasteko liberazio-kontratua.

Baldintzak:

Boluntarioak dira. Eskatera posta elektronikoz bidali behar da gufe.trebakuntza@bizkaia.eus helbidera.

Ez dute ziurtagirik izango

SENTSIBILIZAZIO-MOTIBAZIO SAIOAK 1

Saio hauen helburua da langileengan txip aldaketa eragitea. Euskara jakin bai, baina dena delako arrazoiengatik erabiltzen ez duten langileei begira izango dira. Batzuek erabili nahi bai, baina aukera gutxi izaten dute, eta horri aurre egiteko tresnak emango zaizkie. Beste batzuek, berriz, gaztelerara jotzen dute zuzenean, horretara ohituta daudelako, eta errazagoa egiten zaielako. Bada, saio hauek ohitura horiek aldatzera bideratuta daude, hain zuzen ere, langileak euskara gehiago erabiltzera anima daitezten.

Parte hartzeko C1C1 HE edo B2B2 HE egiaztaturik eduki behar da edo horien pareko ahozko euskara maila erakutsi behar da.

Iraupena: 4 ordu

Lan ordutegitik kanpoko ikasketa orduak, bere helburuak lortzekoak direnak, lanposturako



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

trebakuntzaren konpentsazio bera edukiko dute.

SENTSIBILIZAZIO-MOTIBAZIO SAIOAK 2

Saio hauen helburua izango da lehenengo ikastaroari jarraipena ematea. Lehenengo ikastaroko xedea izan zen langileei hizkuntza ohituretan txipa aldaketa eragitea, eta bide batez, horretan laguntzeko tresnak ematea. Bigarren saio hauetan, berriz, langileek euren esperientziak eta dituzten zailtasunak partekatuko dituzte, eta berriz ere, tresnak emango zaizkie zailtasun horiei aurre egiteko.

Parte hartzeko C1C1 HE edo B2B2 HE egiaztaturik eduki behar da edo horien pareko ahozko euskara maila erakutsi behar da.

Iraupena: 4 ordu

Lan ordutegitik kanpoko ikasketa orduak, bere helburuak lortzekoak direnak, lanposturako trebakuntzaren konpentsazio bera edukiko dute.

BIRZIKLATZE-SAIOAK

Langileek denboraren joanean hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten maila berreskuratzea eta hizkuntza erabiltzeko beldurrak kentzen laguntzea. Azken hizkuntza-arauak zertan diren azaldu, batez ere lan-jardunean baliagarriak diren hizkuntza-arauak. Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardueran. Langileei euskara eguneroko lanean aplikatu dezaten baliabideak ematea. Erregistro formala eta informala bereizten eta desberdin erabiltzen ikastea. Telefonoz zein aurrez aurre, harrera egin, eta kontsultak bideratzeko gai izatea.

Parte hartzeko C1C1 HE edo B2B2 HE egiaztaturik eduki behar da edo horien pareko ahozko euskara maila erakutsi behar da.

Iraupena: 10 ordu

Lan ordutegitik kanpoko ikasketa orduak, bere helburuak lortzekoak direnak, lanposturako trebakuntzaren konpentsazio bera edukiko dute.

IKASTAROA. BALIABIDE INFORMATIKOAK EUSKARAZ

Ikastaro honen xedea da langileei euskaraz lan egin ahal izateko dituzten baliabide informatikoen berri ematea. Ikastaroan, itzultzaile neuronalak, Euskalterm, Elhuyar, Xuxen, Jagonet eta bestelakoak ikusi eta erabiltzen ikasiko dute. Teorikoa eta praktikoa izango da.

Iraupena: ordu bi

Lan ordutegitik kanpoko ikasketa orduak, bere helburuak lortzekoak direnak, lanposturako trebakuntzaren konpentsazio bera edukiko dute.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (VII. Plangintzaldia)

ULER-SAIOAK

Helburua ez da euskaraz hitz egitea izango, baizik eta euskaraz ulertzeko gaitasuna hobetzea. Nolabait, esperientzia bukatu ondoren, gauza izan beharko lukete euskaraz egiten den elkarrizketatxo bat ulertzeko, modu orokorrean behintzat. Beraz, ikastaro hau euskaraz ez dakitenentzat izango da, edota nahiz eta 1 HE eduki, euren burua prest ikusten ez dutenentzat.

Iraupena: 4 ordu

Lan ordutegitik kanpoko ikasketa orduak, bere helburuak lortzekoak direnak, lanposturako trebakuntzaren konpentsazio bera edukiko dute.



GUFE | EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOIA (VII. Plangintzaldia)

10. PLANAREN JARRAIPEN SISTEMA

GUFEn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planen etengabe... beko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema zehaztu da.

Ekintzen betetze-maila jasoko da urtero: ekintzak erabat burutu diren, erdizka burutu diren edo burutzeke geratu diren erregistratuz.

Table with 7 columns: EKINTZAK, URTEA, ARDURADUNAK, EGOERA, BALORAZIOA, OHARRAK. Rows include 1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA and 1.0.2 LIDERGOA.

Table with 1 column: Egoera. Rows include Bidean, Eginda, Egin gabe, Bertan behera, Atzeratuta.

Segimenduak lagunduko digu ondo egindakoak antzematen, baina are garrantzitsuagoa, hobetu beharrekoak identifikatzen.

GUFE sektore publikoko erakundea izanik, plangintzaldiaren erdian eta amaieran autoebaluazioa egingo da, eta, gutxienez, aginte-paneleko adierazleen datuak bidaliko dizkio Hizkuntza Politika Sailburuordetzari.